

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

336

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 9koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, argitara ematen duena larrialdien eta babes zibilaren arloan merezimendu-domina jaso dutenen zerrenda.

Honako hauetan xedatutakoa oinarritzat hartu da: Segurtasuneko sailburuaren 2018ko abenduaren 18ko Agindua eta Segurtasuneko sailburuordearen 2018ko abenduaren 18ko ebazpenak, zeinen bidez eman baitziren larrialdien eta babes zibilaren arloko bereizgarri gorriko dominak –Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sarietarako buruzko azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuaren 12.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera– eta bereizgarri berdeko dominak –dekretu horren 12.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera–. Horrenbestez, eta larrialdien eta babes zibilaren arloko sariak baloratzeko batzordearen ebazpen-proposamena entzun ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Segurtasuneko sailburuak, 2018ko abenduaren 18ko Agindua-ren bidez, larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri gorriko merezimendu-domina ematea ebatzi duela ondoren zehazten direnei:

– Carmelo Arrizabalaga Zabala.

Bigarrena.– Argitara ematea Segurtasuneko sailburuordeak, 2018ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez, larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri berdeko merezimendu-domina ematea ebatzi duela ondoren zehazten direnei:

– Youssef Chaiba.

– Ángel Villuela Bezana

– Aritz Aguiar Basabe.

Hirugarrena.– Azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, zehaztutako horiek domina bana jasoko dute jendaurreko ekitaldian, saria jasotzeko eginiko merezimenduak eta erakutsitako dohainak goraiatzeko.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 9a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.